

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2553

*573/2023 EBAZPENA, maiatzaren 16koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez argitaratu egiten den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorreko 2023ko martxoko zikloaren destinoen eskaintza, A2 Goi Mailako Teknikarien lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako teknikaria kategoriarako / lanpostu funtzionalerako (Kudeaketako Langileen Epaimahaiari atxikitako kategoria).*

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, Osakidetza Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren.

Aipatutako erabakiaren azken xedapenetako bigarrenak ezartzen duenez, erabakia garatzeko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari eskumena ematen zaio beharrezko ebazpen edo instrukzioak eman ditzan, erabakia egoki eta zuzen aplikatu dadin Ente Publikoaren zerbitzu-erakunde guztietan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1309/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorra egiteko deialdia egin zen, A2 Goi Mailako Teknikarien lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriarako (Kudeaketako Langileen Epaimahaiari atxikitako kategoria).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 4.2.1 apartatuan xedatutakoari jarraituz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko du destinoen eskaintza.

Azaldutako guztiaren ondorioz, eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan eskumenez baliatuz,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitaratzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duen Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorraren 2023ko martxoko zikloko destinoen eskaintza, A2 Goi Mailako Teknikarien lanbide-taldeko Euskararen Normalizazioko Goi Mailako Teknikaria kategoriarako (Kudeaketako Langileen Epaimahaiari atxikitako kategoria), ebazpen honekin batera doan eranskinaren bidez.

Ebazpen honen bidez egiten den deialdiaren zikloan, data hauek hartu dira erreferentziazat: 2023ko martxoaren 1a, eskainiko diren lanpostuak hautatzeko, eta 2023ko ekainaren 21a, eskakizunak betetzeko, merezimenduak alegatu eta baloratzeko, eta destinoa aukeratu edo aldatzeko.

Lehiakideek eskabidea aldatu ahalko dute, baita destinoen aukeraketa ere, 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren oinarrietan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1309/2021 Ebazpenean araututakoari jarraiki, 2023ko ekainaren 21era arte, 2023ko martxoko ziklo honi dagokionez.

Destinoen aukeraketa aldatzeko, Lekualdatze Lehiaketa Ireki eta Iraunkorrean parte hartu ahal izateko gaitu den aplikazio informatikoa erabiliko da, eta ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu beharko.

2023ko martxoko ziklo honetan, 2023ko ekainaren 21era arte egindako destino-aukeraketa hartuko da kontuan, aldez aurretik adierazitakoaren arabera.

2023ko martxoko ziklo honetan, prozesu orokorrean egindako eskabideak jasoko dira, baldin eta gutxienez zikloan eskainitako destinoren bat badute 2023ko ekainaren 21a amaitzen denean.

Bigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutu sozialak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 16a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,  
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA.

2023ko maiatzaren 31, asteazkena

## ERANSKINA

## DESTINOEN ZERRENDA

KATEGORIA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA - EUSKARAREN NORMALKUNTZAKO  
GOI-TEKNIKARIALANPOSTU FUNTZIONALA: GOI-MAILAKO TITULUDUNA - EUSKARAREN  
NORMALKUNTZAKO GOI-TEKNIKARIA

Destino kop.	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa
1	Arab. Os. Mentaleko Sarea	Osasun Mentaleko Sarea-Egitura orokorrak / Arabako Ospitale Psikiatrikoa-Vitoria-Gasteiz / Lezako Ospitalea-Laguardia / Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza-Langileen Zuzendaritza / Goizez-Ez espezifikoko gehiago / 4HE-Data igarota
3	Zuzendaritza Nagusia	Erakunde Korporatiboa-Erakunde Korporatiboa / Zuzendaritza Nagusia - Araba-Vitoria-Gasteiz / Giza Baliabideen Zuzendaritza-Garapen eta Prestakuntzako Zuzendariord-Euskara / Lanaldi Zatiua-Lanaldi zatitu ohikoa-Ez espezifikoko gehiago / 4HE-Data igarota